

Ogi hutsa
Mohamed Xukri



Itzulpena: Arantzazu Royo Manterola

Igela argitaletxea

Liburu ona da. Erretorika gutxi, eta kontakizun asko. Ez dut esaten liburu ona denik horrengatik bakarrik (jainkoak libra gaitzala horren arruntak izateaz!). Badena baino ez dut esaten. Besterik ez. Bizitza gogor horietako bat. Mixeria (fisikoa, morala, mentala...) dosi handietan eta... gainerakoa berez dator. Halako biografia daukazunean, zertarako nahi duzu irudimenaz baliatu? Hori Jules Vernek egin dezala... Arabia aldera iraultza egitera euskaldun «san iñaziano» bat baino gehiago adoretuko dituen liburu horietako bat da –han Arabian primeran etorriko baitzaie Che Guevararen ezagutza egitea (“hemen ere primeran etorriko ez balitzaigu bezala...” arrapostuko digute bertoko asegaitzek)–. Ba, esandakoa; erosi liburu eta segi irakurtzera. Ui, barkatu, 14 euro liburu batean xahutzea iradoki egin dut. Barka, benetan, ez zen nire asmoa inor iraintzea. Jesus, 14 euroekin batek har ditzakeen kalimotxo merkeak!

Tira, ba, ea Euskal Kritikarien Elkartekoei nire “kritika” gustatzen zaien. Agian, mari-maisuen presidente izendatuko naute, ezta? Berariaz, gidoiaz gaizki partiturik hainbat hitz azaltzen dira han-hemen liburuan zehar; hori dela-eta itzultzailea hara-kiri egin beharrean ez egotea espero dut... Niri ia harrika egin zidaten, “Gizon Mantsoa” liburuan zenbait hitz gaizki partituta agertzen zirelako. Horrengatik esan dut, beste ezerengatik ez...